

## ZARAUZKO UDAL MUGAPEAN EDUKIONTZIAK JARTZEKO BIDE PUBLIKOAREN ERABILERA BEREZIA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA

### **1. artikulua. Ordenantzaren helburua.**

Ordenantza honen helburua edukiontzia jarri eta bide publikoaren aprobetxamendu berezia arautzea da, eta baita edukiontzia jartzeko aurretik nahitaezkoa den udal baimena lortzeko bete behar diren baldintzak ezartzea ere.

### **2. artikulua. Udalaren baimena behar izatea.**

Enpresek edo edukiontzi-jabeen pertsona fisikoek, horiek bide publikoan jarri nahi badute, dela berrikuntzako, konponketako edo eraikuntza berrietako zaborrak botatzeko, dela beste material batzuk edukitzeko, horretarako baimena eskatu behar diote, derrigor, Udalari.

### **3. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak.**

Eskatzaileak eskabidea aurkeztu behar du Udaletxeko Erregistro Nagusian. Eskabidea Zarauzko alkateari zuzenduko dio eta, baimena eskatzeaz gainera, eskabidea egin duen pertsona edo enpresa identifikatzeko behar diren datu guztiak adieraziko ditu.

Eskatzaileak, aseguru poliza bat ere aurkeztu behar du, behar bezala eguneratuta, ordainketa egunean daukala egiaztatzen duen agiriarekin batera. Polizak, edukiontzia direla-eta, besteri eragindako kalte-galera guztiei erantzungo die, eta baita bide publikoko galtzadetan nahiz espaloietan eta hiri-haltzarietan eragindako kalteei ere.

Alde horretatik, Udalak badu eskubidea aseguru primak ordainduta izanaren hurrengo ordainagiriak eskatzeko. Gutxienez edukiontzia jartzeko baimenak irauten duen arte indarrean izan behar du polizak.

#### **4. artikulua.**

Ordenantza honek arautzen dituen baimenak diren bezalakoak izanik, baimena eman duen organoak badu eskubidea baimena noiznahi bertan behera uzteko ere. Halakoetan, segituan kendu behar du edukiontzia bide publikotik baimenaren titularrak. Hark kendu ezean, Administrazioak berak kenduko du, baina, kendu behar zuenaren kontura izango dira edukiontzia kendu eta gordetzeak sortutako gastuak. Gainera, horrek ez du esanahi arau-hauste horri dagokion zigorrik izango ez denik.

#### **5. artikulua**

Baimenaren titularrak derrigorrez adierazi behar dio Udalari, hark hala eskatuz gero, edukiontziaren erabiltzailea identifikatu eta aurkitzeko behar diren datu guztiak, berehala eta modu errazean.

#### **6. artikulua. Edukiontziak bete behar dituen baldintzak.**

1. Hauek dira baimenaren titularrak, edukiontzien erabilerari dagokionez, bete behar dituen baldintzak:

- a) Pintura islatzailea emanda izan behar du edukiontziak, ondo ikus dadin, eta zenbaki bat ere izan behar du, edukiontzia identifikatu ahal izateko.
- b) Edukiontzia jartzeko orduan, garbitu egin behar da bide publikoan egon daitekeen edozein zaborra edo hondar.
- c) Edukiontziak egoera onean egon behar du beti, batez ere kanpoko aldetik. Hala, debekatuta dago baldintza hau betetzen ez duen edukiontzia bide publikoan jartzea.

2. Hauek dira edukiontzia alokatzen edo erabiltzen duenak, edukiontzien erabilerari dagokionez, bete behar dituen baldintzak:

- a) Edukiontzia zurezko tabloi batzuen gainean jarriko du, lurra zuzenean ukitu gabe.

- b) Laneko orduetatik kanpora erabiltzen ez denean, ondo estalita egon behar du edukiontziak, eta ez dago goiko ertzetatik gora ezer gehiago betetzerik.

## **7. artikulua. Edukiontziak jarri eta garraiatzeko baldintzak.**

Arauetan nahiz alkatearen bandoetan herriko zirkulazioaz agindutakoaren baitan izango dira beti edukiontziak jartzeko baimenak, eta arau edo bando horietan agindutakoa betetzen ez duenari, dagokion zigorra ezarriko zaio.

1. Hauek dira baimenaren titularrak edukiontzia garraiatzeko orduan bete behar dituen baldintzak:

- a) Larunbat eguerdiko 14:00etatik astelehen goizeko 07:00etara eta jai bezperako iluntzeko 20:00etatik hurrengo laneguneko goizeko 07:00etara ezin da edukiontzirik eduki bide publikoan; eta, beraz, ordurako kendu egin behar du edukiontzia bide publikotik baimenaren titularrak.
- b) Titularrak kentzen ez badu, Udalak badu haren ordezkentzeko eskubidea, baina, kendu behar zuenaren kontura izango dira edukiontzia kendu eta gordetzeak sortutako gastuak. Gainera, horrek ez du esanahi arau-hauste horri dagokion zigorrik izango ez denik.

2. Edukiontzia erabili edo alokatzen duenari dagokio baldintza hau betetzea: Egun osoan nahiz ordu batzuetan ibilgailuak uztea debekatuta dagoen tokian ezin du edukiontzirik jarri.

3. Salbuespenez, herriko zirkulazio normalerako kaltegarria dela-eta bidezko iruditzen bazaio, Udalak garai edo toki jakin batzuetan edukiontziak ordutegi mugatu batean jarri eta kendu arazi egin ahal izango du. Horrelakoetan Udalbatzak finkatuko du, kasu bakoitzean, ordutegia.

## **8. artikulua. Kontrola.**

Emandako baimenen titular guztiek hiru hilean behin jakinarazi behar diote Udalari zenbat edukiontzi erabili dituzten denboraldi horretan, non jarri dituzten eta bide publikoan zenbat egunetan eduki dituzten zehazki adieraziz.

Udalak, bere aldetik, aurkeztutakoa egiazkoa den alderatzeko egoki iruditzen zaizkion adina kontrol eta datu-bilketa egin ahal izango ditu, eta egiazkoa ez dena zigortua izango da.

## **9. artikulua. Arau-hausteak.**

Ordenantza honek agintzen duen baimenik izan gabe bide publikoa okupatuz gero, edo testu honetan agindutako gainerako baldintzak bete ezean, ondoko arau-hauste hauen arabera dagokion zigorra ezarriko du alkateak. Arau-hausteak:

a) Arinak, larriak edo oso larriak izango dira arau-hausteak.

b) Arau-hauste oso larriak:

1. Ordenantza honetako 2. artikuluan agindutako baimenik izan gabe bide publikoan edukiontzia jartzea.
2. 3. artikuluan aipatzen den aseguru poliza egunean ez edukitzea.
3. Edukiontzia darabilenaren izena, sozietatearen izena eta helbidea Udalarari ez ematea.
4. Behin eta berriz arau-hauste larriak egitea.

c) Arau-hauste larriak:

1. Larunbat eguerdiko 14:00etatik astelehen goizeko 07:00etara eta jai bezpera iluntzeko 20:00etatik hurrengo laneguneko goizeko 07:00etara bide publikoan edukiontzia edukitzea.
2. 7. artikuluko 3. puntuan adierazitako kasuetan, Udalak finkatutako orduetan ez kentzea edukiontzia.
3. Ibilgailuak egun osoan nahiz ordu batzuetan uztea debekatuta dagoen tokian edukiontzia jartzea, horretarako baimen berezirik izan gabe.
4. Edukiontzia espaloietan edo antzeko tokietan jartzea.
5. Edukiontzia lurretik ez isolatzea.

6. Laneko orduetatik kanpora edukiontzia estalita ez edukitzea.
7. Edukiontzia goiko ertzetatik gora zabor edo hondakinik pilatzea.
8. Behin eta berriz arau-hauste arinak egitea.

d) Arau-hauste arinak:

1. Edukiontzia batere pintura islatzailerik eman gabe edukitzea.
2. Edukiontziak identifikazio zenbakirik ez izatea.
3. Lurrean hondakinak izatea edukiontziak jartzeko orduan.
4. Baimendutako enpresak kontrolerako adierazitako informazioa (ikus 8. artikulua) ez ematea.

#### **10. artikulua. Zigorrak.**

Arau-hauste horiek eginez gero, ondoko zigorrak ezarriko ditu alkateak:

- a) Arau-hauste oso larria izanez gero: 120 euro bitartekoa.
- b) Arau-hauste larria izanez gero: 60 euro bitartekoa.
- c) Arau-hauste arina izanez gero: 30 euro bitartekoa.

#### **11. artikulua. Eskubideak eta tasak.**

Edukiontziak jarri eta bide publikoaren erabilera berezi honek eskubideak eta tasak ordainaraztea dakar berekin. Eskubide eta tasa horiek dagokion ordenantza fiskalean arautuko dira.

**EGINBIDEA.-** Jasoarazteko Ordenantza hau, hasierako izaeraz, 2002ko urriaren 30ean egindako osoko bilkuran onestu zuela Udalbatzarrak.

Zarautz, 2002ko azaroaren 3a  
Idazkaria

**EGINBIDEA.-** Jasoarazteko, jendurrean egon zen bitartean inolako alegaziorik aurkeztu ez zenez, Ordenantza hau behin-betiko onestuta geratu zela eta Probintziako Aldizkari Ofizialean 2003ko otsailaren 3an (zk. 21) argitaratu zela.

Zarautz, 2003ko otsailaren 4a  
Idazkaria